



01/2019 EBAZPENA, MAIATZAREN 21EKOA, GARDENTASUNAREN ARLOKO ERREKLAMAZIO BATZORDEARENA

Espedientea: 2019/00001

Gaia: [REDACTED] jaunak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol departamentuaren aurka jarritako erreklamazioa, informazio publikoa eskuratzeko eskaera ustez ezetsi egin zaiolako.

AURREKARIAK

1.- 2019ko [REDACTED] an, [REDACTED] k aurkeztutako erreklamazioa sartu da Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzorde honetan. Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol departamentuari informazio-eskaera egin eta departamentuak ez zion erantzun, horregatik jarri zuen.

Hona hemen [REDACTED] k egindako erreklamazioak dioena:

"1. 2019ko [REDACTED] an Informazio Publikoa Eskuratzeko eskabide bat egin nuela Gipuzkoako Foru Aldundian eta berau [REDACTED] erreferentziarekin erregistratu zela.

(...)

3. Eskaera egin eta hilabeteko epea igaro denean, ez dut erantzunik jaso.

*Hori horrela, ebazpenik jaso ez dudanez, **ERREKLAMAZIOA** aurkezten dut, jarraian aipatutako puntuak oinarri hartuta."*

2.- Prozedurarekin jarraitzeko, 2019ko [REDACTED] an, Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzordeak, erreklamazioaren berri eman zaio Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol departamentuari, erreklamazioaren kopia erantsiz, eta Gazteria eta Kirol zuzendaritzari eskatu zaio gaiari buruzko txostena egin dezala, eta hura ebazteko esanguratsutzat jotzen dituen agiriak aurkezteko.

3.- 2019ko [REDACTED] ko idazkiaren bidez, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol departamentuko idazkaritza teknikoak jakinarazi dio Batzordeari, jatorrian eskatutako informazioa erreklamatzaillearen esku ipini duela. Jakinarazpen honetan aipatu informazioa erantsi da.

4- Bestalde, Batzordeari igorritako [REDACTED] ko idazkian erreklamatzailleak informazioa jaso izana egiaztatu du, eta aurkeztutako erreklamazioan bertan behera uzteko eskaera.



BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA

1.- Batzorde honek eskumena du aurkeztutako erreklamazioa ebazteko, 4/2019 Foru Arauak, martxoaren 11koak, foru gobernantza publikoaren esparruko Gobernu Onari buruzkoak, xedatzen duenaren arabera.

2.- Bestalde, martxoaren 11ko, 4/2019 Foru Arauak, 7. artikuluan jasotako definizioen arabera, informazio publikotzat jotzen da, foru sektore publikoko subjektuetako edozeinen esku dauden datuak edo dokumentuak, formatu edo euskarria dena dela, subjektu horiek beren jardueretan landu edo eskuratuak

Beraz, Batzorde honek erreklamazio hau ebazteko eskumena dauka, eskatutako informazio publikoa Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol departamentuaren esku baitago.

ERREKLAMAZIOAREN ONARGARRITASUNA

1.- Hasierako informazio eskaera [REDACTED] k aurkeztu zion Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuari 2019ko [REDACTED] an. Une horretan aplikagarri zen araudiaren (4/2014 Foru Araua, otsailaren 6koa, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeko ari buruzkoa) arabera, hilabeteko epea zegoen eskaerari buruzko ebazpena eman eta jakinarazteko.

2.- [REDACTED] k 2019ko [REDACTED] an jarri zuen mintzagai dugun erreklamazioa Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzordean.

3.- Kasu honetan, erreklamazioa eragin duena jatorrizko informazio eskaerak erantzunik ez izatea izan da.

4.- Kontutan izanda, egun erreklamazioen izapidetzeari buruz ez dagoela berriazko araudirik, aplikagarri da 39/2015 Legea, urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Hori horrela izanda, aipatutako Lege honen arabera, informazio publikoa eskuratzeko eskaeren ustezko ezespenei kontra Batzorde honi aurkeztu zaizkion erreklamazioei ez zaie eperik aplikatzen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Erreklamazioa izapidetuko da 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, errekurtsoei buruz diotenaren arabera.

2.- Urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren) 94. artikuluan dago jasota eskubidetzat interesdun orok atzera egin dezakeela bere eskaeran, eta Administrazioak bere horretan onartuko duela atzera egitea, eta amaitutzat emango duela prozedura, salbu eta, prozeduran hirugarren interesdun batzuk pertsonatuta egonik, haiak ez badute eskatzen prozedurak jarraitzeko, atzera egitearen edo uko egitearen berri eman ondorengo hamar egunen barruan, edo prozedura



hasteko gaia interes orokorrekoa bada, edo gai hori mugatzeko eta argitzeko komeni bada hezurramitzea.

3.- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 84. artikuluan ezartzen duenez, berriz, prozedura amaitzeko aukerak hauek dira: ebazpena, atzera egitea, eskaeraren oinarri den eskubideari uko egitea eta iraungitza deklaratzeta.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan hartuta ez dagoela arrazoirik eskatutako atzera egitearen ondorioak mugatzeko, Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzordeak aho batez.

EBAZTEN DU:

Lehena.- Atzera egintzat jotzea [REDACTED] k aurkeztutako erreklamazioa, 2019/00001 espediente-zenbakia duena, eta, beraz, prozedura amaitutzat eman eta espedientea artxibatzeari ekitea, berariaz hala eskatu baitu.

Bigarrena.- Ebazpen hau erreklamaziogileari eta Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol departamentuari jakinaraztea.

Hirugarrena.- Ebazpena argitaratzea, erreklamaziogileari jakinarazpena egindakoa eta datu pertsonalak bereizi eta gero.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan.

Donostia, 2019ko maiatzaren 27a

Kidea

Esther Larranaga Galdós

Batzordeburua

Haritz Ugarte Aizpuru

Kidea

Mikel Ulazia Etxabe



